

2011ko martxoa

Jaun/Andere agurgarria,

Zuregana zuzentzen gara jakinarazteko Estatistika Institutu Nazionalak gure herrialdeko biztanle guztien artean ausaz aukeratu zaituela **Europar Inkesta Sozialean** parte hartzeko. Ikerketa hau 2002az geroztik bi urtean behin burutzen da Europako 30 herrialde inguruan. Espainian, **Zientzia eta Berrikuntza Ministerioak** (MICINN) finantzatzen du ikerketa, **Centro de Investigaciones Sociológicas**-ekin (CIS) elkarlanean, eta koordinatzailea Mariano Torcal Loriente da, Bartzelonako **Universitat Pompeu Fabra**-ko (UPF) katedraduna.

Inkestaren helburua hiritarrek gaurkotasunezko gai sozial eta politikoei buruz dituzten iritzi eta jarrerak ezagutzea da eta beroni erantzuteko ez da inolako ezagutza espezializaturik behar.

Zure partehartzea oso garrantzitsua da, nazio mailako datu adierazgarriak lortu ahal izateko **ezin baitezakegu zure ordezkari beste inor elkarrizketatu**. Jakizu, gainera, ikerketa honen bidez jasotako informazio guztia Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Lege Organikoaren mende dagoela, zeinak informazio hau isilpean mantentzeko agindua ezartzen baituen. Zure anonimotasuna eta zure erantzunena erabat bermatuta daude, beraz.

Europar Inkesta Sozialean aurretik parte hartu duten pertsonen gehiengoaren ustez esperientzia interesgarria izan da eta zuretzat ere hala izango dela espero dugu. Aurki, behar bezala akreditatutako **Metroscopia**-ko elkarrizketatzaile bat zurekin harremanetan jarriko da zure etxean. Metroscopia iritzi eta gizarte ikerketen eremuan esperientzia zabala duen erakundea da. Elkarrizketatzaileak inkestari buruzko xehetasun gehiago emango dizkizu eta, ados bazaude, egun eta ordu bat adostuko duzue berau burutzeko. Elkarrizketak ordubete inguru irauten du. Zure partaidetza izango dugula espero dugu.


Ikerketari buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, deitu diezaguzu **900 101 493** doako telefonora. Ondorengo web orrietan ere lortu dezakezu inkestari buruzko informazioa:

<http://www.upf.edu/ess/> (gazteleraz)
<http://www.europeansocialsurvey.org/> (ingelesez)


Aurrez zure partaidetza eta arreta eskertzen dizugu,



Mariano Torcal
Europar Inkesta Sozialaren
koordinatzailea Espainian



Ramón Ramos Torre
CIS-eko presidentea



José Juan Toharia
Metroscopia-ko presidentea

2011ko apirilean

Jaun/Andere agurgarria,

Oraintsu bidalitako gutunean jakinarazi genizun Estatistika Institutu Nazionalak gure herrialdeko biztanle guztien artean ausaz aukeratu zaituela bi urtean behin Europako herrialde gehienetan burutzen den **Europar Inkesta Sozialean** parte hartzeko. Bigarren gutun honen helburua inkestari buruzko informazio gehiago jasotzen duen informazio-liburuxka bat zuri helaraztea eta zure partehartzean dugun interesa gogoraraztea da.

Zure partehartzea oso garrantzitsua da, lortutako emaitzak herrialde guztiko biztanleek pentsatzen dutenaren adierazgarri direla bermatzeko **ezin baitezakegu zure ordeztu beste inor elkarrizketatu**. Inkestaren helburua hiritarrek gaurkotasunezko gai sozial eta politikoei buruz dituzten iritzi eta jarrerak ezagutzea da eta beroni erantzuteko **ez da inolako ezagutza espezializaturik behar**.


Europar Inkesta Sozialean parte hartu duten pertsonen gehiengoaren ustez esperientzia interesgarria izan da eta zuretzat ere hala izango dela espero dugu. Halaber, gogorazi nahi dizugu zuk emandako erantzunak Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Lege Organikoaren mende daudela eta **beraien anonimotasuna bermatua dagoela**.

Aurki **Metroscopia**-ko elkarrizketatzaile bat zurekin harremanetan jarriko da zure etxean. Metroscopia iritzi eta gizarte ikerketen eremuan esperientzia zabala duen erakundea da. Elkarrizketatzaileak inkestari buruzko xehetasun gehiago emango dizkizu eta, ados bazaude, egun eta ordu bat adostuko duzue beraz burutzeko. Elkarrizketak ordubete inguru irauten du. Zure partaidetza izatea espero dugu.


Aurrez zure partaidetza eta arreta eskertzen dizugu,



Mariano Torcal
Europar Inkesta Sozialaren
koordinatzailea Espainian



Ramón Ramos Torre
CIS-eko presidentea



José Juan Toharia
Metroscopia-ko presidentea

Jaun/Andere agurgarria,

Oraintsu bidalitako gutunean jakinarazi genizun Estatistika Institutu Nazionalak gure herrialdeko biztanle guztien artean ausaz aukeratu zaituela **Europar Inkesta Sozialean** parte hartzeko. Azken egun hauetan zurekin harremanetan jartzen saiatu gara baina gaurdaino **ezin izan zaitugu aurkitu**.

Gutun berri honekin eskatu nahi genizuke ikerketa burutzen diharduen **Metroscopia** enpresarekin **900 101 493 doako telefonoan** harremanetan jar zaitezten, zuri ondoen datorkizun egun eta ordu baterako elkarrizketatzailearekin hitzordu bat adosteko. Doako telefono honetan, gainera, inkestari buruzko informazioa lor dezakezu edota ikerketari buruzko zalantzak argi ditzakezu.

Zure partehartzea oso garrantzitsua da, lortutako emaitzak herrialde guztiko biztanleek pentsatzen dutenaren adierazgarri direla bermatzeko **ezin baitezakegu zure ordeaz beste inor elkarrizketatu**. Inkestaren helburua hiritarrek gaurkotasunezko gai sozial eta politikoei buruz dituzten iritzi eta jarrerak ezagutzea da eta beroni erantzuteko ez da inolako ezagutza espezializaturik behar.

Europar Inkesta Sozialean parte hartu duten pertsonen gehiengoaren ustez esperientzia interesgarria izan da eta zuretzat ere hala izango dela espero dugu. Halaber, gogorarazi nahi dizugu zuk emandako erantzunak Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Lege Organikoaren mende daudela eta beraien **anonimotasuna eta konfidentzialtasuna bermatuta daudela**.

Europar Inkesta Sozialari buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, ondorengo web orrietara jo dezakezu:


<http://www.upf.edu/ess/> (gazteleraz)

<http://www.europeansocialsurvey.org/> (ingelesez)

Aurrez zure partaidetza eta arreta eskertzen dizugu,



Mariano Torcal
Europar Inkesta Sozialaren
koordinatzailea Espainian



José Juan Toharia
Metroscopia-ko presidentea

Jaun/Andere agurgarria,

Zurekin harremanetan jartzen gara Estatistika Institutu Nazionalak **Europar Inkesta Sozialean** parte hartzeko hautatu zaituelako. Ausaz egin den hautaketa horren helburua inkestaren emaitzak herrialde guztiko biztanleek pentsatzen dutenaren adierazgarri izatea da.

Inkesta burutzearen ardura duen Metroscopia-ko elkarrizketzatzaileak jakinarazi digu **ikerketan parte hartzeari buruzko zalantzak dituzula** eta gutun hau baliatu nahi dugu parte hartzera anima zaitezten.


Azpimarratu nahi genuke, ikerketaren emaitzak adierazgarriak direla bermatu ahal izateko, **ezin dezakegula zure ordeztan beste inor elkarrizketatu**. Halaber, gogorarazi nahi dizugu **zuk emandako erantzunak anonimoak izango direla eta zure identitatea ez dela ezagutaraziko**, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Lege Organikoak babesten baititu.

Inkestaren helburua hiritarrek gaurkotasunezko gai sozial eta politikoei buruz dituzten iritzi eta jarrerak ezagutzea da eta beroni erantzuteko **ez da inolako ezagutza espezializaturik behar**. **Europar Inkesta Sozialean** parte hartu duten pertsonen gehiengoaren ustez esperientzia interesgarria eta dibertigarria izan da eta zuretzat ere hala izatea nahi genuke.


Mezu hau jaso ondoren parte hartzea onartuko bazenu, **Metroscopiarekin 900 101 493** doako telefonoan **harremanetan jar zaitezten eskatzen dizugu**. Bertan, elkarrizketatzeilerakin hitzordu bat adostu ahal izango duzu zuri ondoen datorkizun egun eta ordu batean. Ikerketari buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, ondorengo web orrietara jo dezakezu:

<http://www.upf.edu/ess/> (gaztelera)
<http://www.europeansocialsurvey.org/> (ingelesez)

Ikerketan parte hartzea onartuko duzula espero dugu eta aurrez zure partaidetza eta arreta eskertzen dizugu,



Mariano Torcal
Europar Inkesta Sozialaren
koordinatzailea Espainian



José Juan Toharia
Metroscopia-ko presidentea